

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

NOGko profesionalak Espainiako Nefrologia Elkartearen etxeko hemodialisi eskuliburua egiteko lanean hartu dute parte

Gaur egun, Nafarroako Ospitale Guneko pazienteen %15ak etxeko tratamendua jarraitzen du, giltzurruneko gaixotasuna arintzeko

Ostirala, 2018.eko abenduak 21

Nafarroako Ospitale Guneko (NOG) Nefrologia Zerbitzuko sendagile espezialista batek eta bi erizainek, Espainiako Nefrologia Elkarteak (SEN) argitaratu duen "Manual de hemodiálisis domiciliaria" liburuaren idazketan hartu dute parte. Fernanda Slon Roblero Nefrologia Zerbitzuko sendagile espezialista eta Etxeko Tekniken Unitateko



Slon Roblero, Bueno Zamarbide eta Labat Yanguas, eskuliburuarekin.

arduradunak "Dosis de diálisis, prescripción y adecuación en hemodiálisis domiciliaria" kapitulua idatzi du. Itziar Bueno Zamarbide Erizaintza Saileko buruak eta Helena Labat Yanguas Etxeko Tekniken Unitateko erizainak, berriz, "Educación y entrenamiento de la hemodiálisis domiciliaria" kapitulua idatzi dute.

Lana, SEN elkarrearen XLVIII. Nazio Kongresuan eta Nefrologiako IX. Kongresu Iberoamerikarrean aurkeztu da, duela denbora gutxi. 15 kapituluz osatutako lana, etxeko hemodialisiaren garapenerako aukera emango duen kontsulta material gisa argitaratu da, giltzurrunetako gaixotasunaren tratamendurako paziente guztiei eskaini ahal izango zaien aukera moduan. Liburuaren argitalpenean Erizaintza Nefrologikoko Espainiako Elkarteak (SEDEN) ere hartu du parte.

Etxeko hemodialisia Nafarroan

Giltzurrunetako ordezkotzat tratamendurako etxeko teknikak dialisi peritoneala eta etxeko hemodialisia dira. Nafarroan, 80ko hamarkadatik ari dira dialisi peritonealarekin lanean. Etxeko hemodialisiari dagokionez, berriz, 2007an hasi zen, baina behin betiko bultzada 2014an eman zitzaion.

NOG izan da Etxeko Tekniken Unitatea sortu duen Estatu osoko lehenbiziko ospitaleetako bat, eta etxeko hemodialisi eramangarriaren aukera eskaini duen lehenengoa. Horrek aurrerapen nabarmena eragin du etxeko teknikaren garapenean, eta zentroa Espainiako garrantzitsuenak

bilakatu da teknika horren garapenari eta lortutako emaitzei dagokienez.

Gaur egun, garrantzi berezia hartu du etxean egiten diren tekniken sustapenak, pazientearen autonomia eta auto-zainketa bultzatzen dutelako eta terapia eraginkorragoak eta merkeagoak direlako. Azken bost urteetan, Giltzurrunetako Gaixotasun Kroniko Aurreratua (GGKA-ERCA) duten pazienteen % 71k kontsulta espezializatuko arreta jaso du, giltzurrunetako ordezeko tratamendua hasi aurretik, eta horietatik %55 inguruk etxeko teknika aukeratu du. Datu orokorreari dagokienez, gaur egun NOGko pazienteen %15 inguruk etxeko tratamendua jarraitzen du, giltzurruneko gaixotasuna arintzeko.

Erizaintzako arreta, funtsezkoa

Teknika horien aukeraketan eta garapen egokian, erizainaren figura funtsezkoa da. Diziplina anitzeko taldearen barruan, bere egiteko garrantzitsuenak pazienteari informazioa ematea eta berarekin egotea dira, funtsezko bi unetan, alde batetik aukeratu behar duen tratamendu motari buruzko erabakiak hartzeko prozesuan, eta, bestetik, behar bezala prestatzeko orduan, etxeko teknika aukeratzeko baldin badu. Etxeko teknikaren arrakastaren parte handia, etxeko pazientearekin harreman zuzena izango duen eta hezitzailea ere izango den erizain gisa bete beharreko jardueran dago.

Etxean aurrera eramango den teknika aukeratu ahal izateak zerikusi handia du Giltzurruneko Gaixotasunaren hautemate goiztiarrarekin, eta baita GGKA-ERCAko kontsultatik –sendagilearena eta erizainarena–, erabaki egokia hartu ahal izateko behar adinako denbora izatearekin. Hori dela eta, oso garrantzitsua da giltzurruneko gaixotasun kronikoa duen pertsonari dagozkion arreta zerbitzuaren alderdi guztien antolakuntza eta integrazio egokian lan egitea.

Erabaki klinikoak diren alderdiez gain, badaude neurri handian arrakastari, arreta garaiz eskaintzeari eta eraginkortasunaren eta kostuaren ikuspegietatik emaitzen hobekuntzari laguntzen dioten beste zenbait alderdi ere: espezialistak ongi prestatzea; azpiegitura egokiak izatea; sendagilearen eta erizainaren GGKA-ERCA kontsulta edukitzea; teknikaren aukeraketa egokirako prozedurak ezartzea; erabiltzaileen gogobetetze maila ezagutzea; dialisian programatu gabeko hasiera lantzea; sarbideen gauzatze kirurgikorako zirkuituak hobetzea; eta arazoekonponbide azkarra bermatzea.